

## IPUIN-SARIKETA

zer dan gure izketaren bizi-sua, odol zaiñetan sentitua. Orregaitik nai digute zur-zulotik sartu beuren gernu ta gorotz.erdara. Israel'en eduz, gure Erri oni betorkio lenbailen samin ordeko askatasunaren poz eta irria.

### BEN JEHUDA REN LANA

Eunka urtetan zearo illik zetzan Israel'go izkera aren alde, neke ta gorabera askorekin bere bizitza eman zuana zan Ben Jehuda, abeleraz eta erabakiz ornitutako gizona. Gori biotz labea, egamin, ez aipu otsez, ez sai-zun, ametsen illdotik, mukulu barik goi-miñez igurtzia. Aal misteriotsuz, baikor eta itxaro-sen aundiko gizon alegintsua.

Sabin dar aizea bezain isiti ari ta ari zegion fu-ta-fu illinti ondakintsuan bere lanari, fedez.

Begokit galdera eta urbil gakion gizonari: Zer da ba judu betazpitsu onek egin ziguna? Eguzkia eskuratu? Ez, areago! Eberkera illa piztu.

Amarkadatan, denpora-aldi magal luzean erio.untzaz irolduta zetzan profeten izkuntza, Eliezer'ek ubelgorriz, igudiziz kanpai-ots beti-miñez FENIX baten antzera, lebitarren izkuntza sagaratuan ustez betiko il-bearra zegokion (ezinbesteko suntsiera) talmud-zapiz eortzitako EBERKERA.

Eriotsua deitu zioten egin eta ordaindu ezin dan guzia-gaitik.

Amets-bidean jartzen gaitu euskaldunok. Noizpait eberkeraren antzera euskerak burua irmo jasoko al-du. Ta euskerarekin gure Erri osoa.

Gizonkiro, jakintza-sena jariotzen, olermen lastargiz piztutako Dabid'en salmudi majikuan bizkarra, okuntza biotz-laiez labakitzen beti akion.akion, larruxkak uxarean aritu zitzaigun atzartasun aundiz.

Lekaroan oiurriak dantzazten arilkoa. Errape onak naas-molko lez lauskitu zigun arretatsu, jakintsuen galbaitan iraziz, noranaiko kulturbiderako egokituz, antziñakoa, oraintsukoa, edezertarakoa, Lizardi gureak bezela garunari ekiñaz euskeraren goruan irule. Erdipuzkeriak arbiatuz, guztia guntzu arragotu. Jori ta tajuz zuzpertz, geldizaleen bildur eta ergelen asarre ta isekak uxaraziz, oldartien antsiak zuzenki xamurtu zituan. Gogo onez dana baretu. Bai jainkozko doaia arena.

### ELEIZER EN BIZI-ZEETASUNAK

Eberkeraren urre-aroa gertu nai zuan onek bizitza jarri zuan goiasmo orren alde.

Errusia mendeko Lituania'n 1 858gn. urtean jaioa, irakurritako mariñel batek zoriketak eberkeraz ere erabiltzeko baliogarri zitzaizkiola sinistuta zegoan.

Bi amets ditu 1917 urtea ezker: iztegia bukatzea eta arbasoen aberrian lur artzea. Azagak asko eskatu zion eta il bear izan zuan goretsia izateko. Azken itza (nefesh) (anima) mamitzen eman zituak azken-urteak.

### EBERKERA TA EUSKERA

Erri danak edo-ta bear-bearrez daramate bere izatezko garapenean misterio-zati bakan bat, oso eragingarri ta aurrerakoa. Judu-erria ez da bereizpen bat. Misterio guztiak agiriko eta soiñutsu ba'lira tronpetak otsenkatuko lukete durundan ba'leudekean. Gure euskal izkuntza, morfologiz ain aindur, mendi-ijlotsu soiñutasunez, gu euskaldunok soagarritzen omen gaituala esaten dute, eberkeraren antzeko anaitasunez.

Oxintxu (Egaña'tar Gotzon)

## URRIÑERA

Urrindik kusten dot  
Euskalerra maitea  
bizitz ederturik,  
gora-goraka doa  
erri bizitz aroa  
indarrez goiturik

Erri txit indartuak  
agertuten doazi  
zelai aldietan,  
lantegi nagusiak  
jabetuaz lanean  
toki bikaiñetan.

Urrindik ikusten da  
erri jaun nagusia  
beren egiñetan  
gizonak, zurki, doaz  
biziaren ondoren  
goizeko orduetan

Urrindik ikusten da  
ke bizitzaz ondua  
tximinian gora,  
bizia ontzen doa  
lanez ta jakituriz  
bear dan erara

Lantegi agurgarri,  
bearra eta poza  
emon gizonari,  
sendi maitagarriak,  
egiz, izan daitezkan  
lurrean ugari

Urrindik ikusten da  
lan aurrerapidea  
euskaldun errian,  
lan-zoka eder ori  
sendotzen iun dedilla  
gizonen bizian.

Paulin

## BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ\*



Bizkaiko Foru Aldundia  
Diputación Foral de Bizkaia  
Kultura Sala  
Departamento de Cultura

ALDIZKARI ONEK  
BIZKAIKO FORU-ALDUNDIAREN  
DIRU-LANGUNTZA JASO DAU